

## .eus ekainaren 21etik aurrera erabili ahal izango da

HAINBAT URTETAKO kanpainaren ondoren, euskal kulturak sareko domeinua izango du, eta ekainaren 21ean abian jarriko da.

Sei urtez luzatu da puntu honetara iristeko bidea, proiektua sustatzeko garaia izan da, eta PuntuEus fundazioko kide Ira-txe Esnaolak adierazi duen moduan “hemendik aurrera hasiko da proiektuaren faserik garrantzitsuena”.

Ekainaren 21etik hasita, sei hilabetez, euskararen eta euskal kulturaren inguruko erreferen-

tzia diren webguneek erabili ahal izango dute .eus domeinua; 90 eragile inguruk, alegia. Ekarpen ekonomiko bereziak egin behar-ko dituzte eragileok: norbanakoe-k 300 euro, eragileek 500 euro, instituzio publikoek 3.000 euro eta enpresa eta hedabideek 5.000 euro.

Euskararen Eguneetik aurrera (abenduak 3), PuntuEus filoso-fiarekin bat egiten duen edonork eskatu ahal izango du domeinua erabiltzeko baimena; beti ere euskarazko edo euskal kulturaz ari den ataria baldin badu.



Duela sei urte abiatu zen .eus domeinua sustatzeko proiektua. Argazkian PuntuEus fundazioko kideak.

## Bahea

**Eduardo Apodakak Berrian esanak:**

“Kezkagarriagoa da, ordea, euskararen bizi-gune biziak urtzen ari direla jakitea. (...) Halakoetan bi tentazio lizun agertzen dira. Aurrena, gettho moduko txokoak sortzea, euskaldun ekintzaileek euren buruari sor diezaioten euskaraz aritzeko aukera. Baina, tamalez, aspal-diko legeak, euskaldun pare bat batu eta euska-ra ernatuko da, ez da betetzen lehen adina. Beste taxu batekoak dira eskolako euskaldunak, hartzaile hutsak nonbait. Eta handik dator biga-rren tentazioa, makurragoa, eta instituzio mapa-gileei antzematen diedana: elebidun kopurua aski dela iritzita, euskaldun mutuak aktibatzen psikopolitika, betiere psikologia positiboa deri-tzon mamutzar horren eskutik. Horrela pasako dira euskaldunak gutxiespen historikotik autoes-timu, jabekuntza, erresilientzia, auto-eraginkor-tasun, adimen emozional eta antzeko buru-tek-nika eta gimnasia psikosozialetan zailtzera eta trebatzera. Horiei arreta ematen zaie egitura soziokulturalek babesten ez gaituztenean. Egoerak determinatzen ez badu euskara dela arauzko eta beharrezko hizkuntza, berariaz hau-tatu behar dute hiztunek, eta, hartarako, sor eta herabe dabilzan euskaldunak gartu eta piztu beharko. Azken buruan, erabilera eta ezagutza-ren arteko dikotomia sinpletik ondorioztarazi nahi digute euskaldunek ez dutela ahal beste erabiltzen euskara, hitz gutxitan: euskaldunek berek dute kulpaa eta ez Mapak”.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Termometro sindikala

JOAN DEN ASTEAN termometro sindikala neurtzeko garrantzi sozial handiko bi egun izan genituen: Laneko Segurtasun eta Osasunaren Eguna eta Maiatzaren Lehena. Berriz ere baieztatu ahal izan dugu urte osoan bizi ohi den errealitatea: sindikatuen arteko banaketa. Apirilaren 28an, sindikatuak euren pankarta eta toki berezietan mobilizatu ziren, laneko segurtasun falta eta mutuen erabilera salatzeko. Gauza bera gertatu zen Maiatzaren Lehenean; sindikatu estatalistek izan ezik, gainerakoek euren manifestazioak egin zituzten, aldarri-kapen ezberdin nahiz antzekoekin. Espektakulua bene-tan tamalgarria izan zen, hain justu langabeziak eta kri-siak erasaten digun honetan eta kapitalismoaren patronalak inoiz baino batuago daudenean. Eurek bal-dintzatzen dute gobernu eta administrazioaren jarduna.

Banaketa egunetik egunera mantentzen bada, ez du ezertarako balio pare bat egunetan “batuta” azaltzeak.

Baina nabarmentzekoa eta kezkagarria da Euskal Herriak jasaten duen egoera sozio-ekonomiko larria kontuan hartuta eta subiranotasun faltaren aurrean, sin-dikatuek eta ezkerreko erakunde sozialek, bereziki aber-tzaleek, lokatzetan segitzen dutela, talde estrategiak edo ekintza bateratuak adostu ezinik. Banaketa ez ote da langile eta herritarrengan asperdura sortzen ari? Langi-leak ez ote dira gero eta gutxiago mobilizatzen, hain justu eraso kapitalista inoiz baino handiagoa denean? Soilik bazkide eta ordezkari sindikalak mobilizatuz kon-formatuko dira? Eta zer gertatzen da sindikatu gabe dauden langile, langabetu, pentsionista eta gazteen –%55 langabezia– gehiengoarekin? Sindikatu bakoit-zak ahalegin handiagoa egin beharko luke adostasuna bilatu eta eraso kapitalistaren aurrean mobilizazio bateratuak egiteko.

**Juan Mari Arregi**

